

**KIROL JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZEN
ORDENANTZA ARAUTZAILEA****I. TITULUA****1. artikulua. — Xedea**

Ordenantza honen xedea arautegi bat ezartzea da, bizilagunek Udalaren eskumenekoak diren eta bete-betean eskaintzen ez dituen zerbitzuak osatzen edo ordezkatzeko dituzten norbanakoentzako aisia-jarduerak sustatzeko eta ekipamendu publiko eta pribatuaren prestakuntzarako diru-laguntzak eskatzeko eta zuzenean emateko prozedura eta baldintza orokorrak zehazteko.

2. artikulua. — Diruz lagun daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahal izango dira Garaiko bizilagunek egiten dituzten kirol jarduerak, abonua, matrikulen edota kirol ikastaroen bidez, banakoak naiz familiarrak izan, durangaldeko ondoko udalerrietan kokaturiko ekipamenduetan.

3. artikulua. — Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradunak Garaiko udalerrian bizi diren pertsonak izan daitezke, laguntzok esleitzeko ezarritako baldintzak betez gero.

4. artikulua. — Aurrekontu-aurreikuspena

Udalak dagokion ekitaldian aurrekontu-partida bat bideratuko du diru-laguntzen banaketara; diru-laguntzok esleipena ebazpenaren unean kreditu nahikoa izatearen men-de egongo da.

5. artikulua. — Irizpide orokorrak

Udal-aurrekontuaren baitako baliabideek onartzen duten heinean, Udalak diru-laguntzak eman ditzake aipaturiko jarduerak egiteko, ondorengo arauak kontuan hartuta:

1. Diru-laguntzak borondatezkoak eta behin-behinekoak izango dira. Emateko erabakiak ez du Udala behartuko eta ez du eskubiderik eragingo etorkizu-neko esleipenei begira, ezta aurrekaririk ezarriko ere.
2. Udalak edozein unetan ezabatu edo murriztu ahal izango ditu, kontrako ebazpenik ez balego.
3. Ezingo da eskatu diru-laguntza handi edo berrazter dadin.
4. Udalak beretzat gordeko du, interes bereziko jarduerak hala eskatuz gero, egoki deritzen ehunekoan eta moduan diruz laguntzeko aukera.

6. artikulua. — Diru-laguntzak esleitzeko baldintzak honakoak dira

- a) Garaiko udalerrian erroldatuta egotea eskaera egin baino urtebete lehenago gutxienez, eta ikastaroa amaitu arte erroldatuta jarraitzea.
- b) Durangaldeko udalerrietako edozein Kiroletako Udal Institututan (KUI) edota kirol zentroetan matrikulatuta egotea.
- c) Eskatzailearen familia-unitateak egunean izan behar ditu Garaiko Udalarri ordaindu beharreko zerga, tasa eta prezio publikoen ordainketa guztiak.

7. artikulua. — Onuradunen betebeharrak orokorrak

1. Diruz lagundutako jarduerak, diruz lagundutako ekitaldian garatu behar dira, eta
2. artikuluan aipaturiko dokumentazioaren bidez zuriu behar dira.
2. Ezin izango da aldatu esleitutako diru-laguntzen helburua.
3. Jarduera baterako diru-laguntza jasotzeko eskaera aurkezte hutsak Ordenantza honen ezagutza eta onarpena dakartzatza, baita diru-laguntzen esleipena arautzen duten oinarriena ere.



4. Ezin izango zaie diru-laguntzarik esleitu zuritu gabeko funtsak dituztenei; funtsok eskatu egin ahal izango dira eta zerga-zor izaera edukiko dute.

5. Ordenantza honetan jasotako betebeharrak eta zehaztapenak ez betetzeak diru-laguntza baliogabetzea eragin dezake.

8. artikulua. — Eskaerak

Diru-laguntzak jasotzeko eskaerak Udalaren Erregistroan aurkeztu beharko dira, norberak egindako eskaera bidez eta eskatzaileak sinatuta. Eskaeran, diru-laguntza zein egitarau edo jardueratarako eskatzen den zehaztuko da, eta honakoekin batera aurkeztuko da:

1. Eskatzailearen NANen fotokopia.
2. Fakturaren kopia edo ordainketaren ordainagiria.
3. Helburu berarekin jasotzen diren bestelako diru-laguntzen adierazpena, udal zerga-betebeharrak egunean daudelako adierazpena eta Udalak lehendik emandako diru-laguntzak zuritu izanaren adierazpena.

Aurkezturiko dokumentazioa nahikoa ez balitz, edota datuen konprobaketa beharrezkoa izango balitz, Udalak beste frogagiri batzuk eskatu ahal izango ditu, interesdun bakoitzaren berezitasunen arabera zehaztuko liratekeenak, baita diru-laguntzaren tramitazioarako behar diren datuen konprobaketa egin ahal izango du.

9. artikulua. — Dokumentazioa aurkezteko epea

Alkatetzak Udalaren iragarki-taulan iragarriko du deialdia, eskaerak aurkezteko epea zehaztuta. Udalaren webgunean ere argitaratuko da.

10. artikulua. — Onarpena

Urte osoan aurkezturiko eskaerak Alkatetzak edo dagokion arloko zinegotzi ardura-dunak ebatziko ditu, Alkatetza-dekretu bidezko aurretiko irizpena eskuan; eskaera onetsi eta 10 eguneko epean jakinaraziko zaio eskatzaileari.

Ebazpenek amaiera emango diote bide administratiboari; ebazpena eman duenaren aurrean berrezartze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, edo zuzenean aurkaratu ahal izango dira Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan.

11. artikulua. — Laguntzen zenbatekoa

Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitekeen gastuaren %30 izango da, hala ere, diru laguntza hau, ezin izango du 100 euroko zenbatekoa gainditu eskatzaile bakoitzeko.

II. TITULUA

LAGUNTZEN ITZULKETA

12. artikulua. — Itzulketarako arrazoiak

Jarraian ageri diren gertakarietako edozein jazo gero, laguntzetariko baten onuradunak jasotako laguntzaren zenbatekoa itzuli beharko dio Garaiko Udalari, berandutze-interesak barne:

- a) Laguntzaren esleipen-ebazpena deuseza edo deuseztagarria baldin bada (Kasu horretan, ez du berandutze-interesik eragingo).
- b) Ordenantza honek laguntza bakoitza eskuratzeko ezarritako baldintzetakoren bat faltutzea.
- c) Behar bezala ez betetzea egiaztatzeko betebeharra.
- d) Ez betetzea laguntzaren xedea.
- e) Onuradunak, berari egozgarriak zaizkion arrazoiak tarteko, ez betetzea laguntza jaso izanak eragindako betebeharrak.
- f) Udalak egin beharreko egiaztapen eta kontrol ekonomikoa tratatzea, eragozte, saihestea edo ukatzea.

**13. artikulua.— Dirua itzultzeko prozedura**

Kasu bakoitzean eskumena duen organoak, ofizioz, onuradunak jasotako laguntzak itzultzeko prozedura hasiko du. Prozedura hasi eta hamabi (12) hilabete igarota ez balego ebazpenik, iraungizat joko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau arau honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten laguntzei aplikatzeko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geldituko da 2017ko urriaren 25ean onartutako eta 2017ko abenduaren 29an argitaratutako kirol jarduerak egiteko diru-laguntzen ordenantza arautzailea, ordenantza hau argitaratu eta indarrean jartzen danean.

AZKEN XEDAPENA

Modu subsidiarioan, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra aplikatuko da, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa; baita ordenantza-
ren edukia garatzen dutenak ere.

Ordenantza hau sartuko da indarrean apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49, 65.2 eta 70.2. artikuluetan xedaturiko moduan, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.



KIROL JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA
SOLICITUD DE SUBVENCIÓN PARA ACTIVIDADES DEPORTIVAS

Eskatzailea / Solicitante

Form fields for applicant information: Izen-abizenak / Nombre y apellidos, NAN-AIZ / DNI-NIE, Helbidea / Domicilio, Zk. / N.º, Udalerria / Municipio, PK / CP, Telefonoa / Teléfono, E-maila / E-mail, Probintzia / Provincia

Banku helbideraketaren datuak / Datos de domiciliación bancaria

Form fields for bank account information: Kontu korrontearen jabearen izen-deiturak / Nombre y apellidos de la persona titular de la cuenta, BIC, IBAN, Erakundea / Entidad, Sukurtsala / Sucursal, KD/DC, Kontuaren zk. / N.º de Cuenta

* Erantsi Hirugarren titxa. / Adjuntar Declaración de terceros.

Kirol jarduerari buruzko datuak / Datos relativos a la actividad deportiva

Form fields for sports activity data: Kirolekako Udal Intitutua edota kirol zentroa / IMD o centro deportivo, Ordaindutako matrikula edo kursoaren zenbatekoa / Cuantía de la matrícula o curso abonado, Bestelako datuak / Otros datos

DIRULAGUNTZA ONARTZEKO SINADURA ETA BALDINTZAK / FIRMA Y CONDICIONES DE ACEPTACIÓN

Large form section for signature and conditions, including checkboxes for document submission, commitment text, data protection notice, and signature lines.

EEK: BAO-2018a241-(II-5109)